

Handbike

Deskribapena

Proiektuak Galdakaoko Txirrindulari Elkarteak (GTE) proposatutako "Gela erronka" baten du jatorria: desgaitasun funtzionala duen ume batentzat pedaldun ibilgailu egokitua (Handbike) diseinatu eta fabrikatzea. Ibilgailu honek, alde batetik umearen adin eta mugikortasun zailtasunei erantzuna eman beharko zien eta, bestetik, umea hasi heinean "grow-up" sistemaren bitartez ibilgailua bera egokitzeko aukera eman beharko zuen.



Egindako lana

Hainbat bidelagun izan ditugu proiektuan elkarlanean:

- CIFP Iurreta LHII: diseinoan lagundu, piezak fabrikatu eta muntaia egin.
- IES Barrutialde: piezak egiten lagundu
- Mikel Lopez (diseinoa)
- GTE (Galdakaoko Txirrindulari Elkarteak)
- Bikingo: eskuz egindako bizikletak ekoizten duen enpresa.
- TM Hirusmodel SLL: jesarlekua fabrikatu dute.

Urriaren 26an Galdakaoko Torrezabal Kultur Etxean "Handbike Gela Erronka" dokumentala aurkeztu zen, non proiektuaren zernolakoak eta egindako lanaren xehetasunak azaltzen diran (<https://youtu.be/gKnIs0YkimM?feature=shared>).



Emaitza

Urriaren 26an aurkeztu zen prototipoaren lehendabiziko bertsioa. Bertsio hau hobekuntzak eta egokitzapenak jasotzen ari da, azken bertsioa erabat pertsonalizatuta izan dadin. Prototipoak egoera berberan dauden umeei itxaropenerako ate bat zabaltzen dizkie, kosteak merkeagotzen dituzten ekoizpenaren bidea erreztuz. Argazkian: prototipoa CIFP Iurreta LHIIko harrera-gunean.

